

## 245. ALDIZKARIA - 2016ko abenduaren 22a

### ANTSOAIN

### 2017rako aldaketa ordenantza fiskaletan, prezio publikoak arautzen dituzten arauetan eta tributuen zerga-tasetan. Hasierako onespena

Antsoaingo Udalak, 2016ko azaroaren 30an egin osoko bilkuran, erabaki zuen jarraian aipatzen diren tributuetan ondoko karga-tasak eta errekarquak mantentzea 2017rako:

–Lur-ondasunen gaineko kontribuzioa. Karga-tasa: %0,21609.

–Jarduera ekonomikoen gaineko zerga: 1,4 indizea ezartzea, poligono fiskal guztietarako, zergaren gutxieneko kuoten gainean

–Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga. Karga-tasa: %5.

–Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga:

a) Benetako igoeraren zenbatekoa zehazteko, ondoko portzentajea aplikatuko da sorrarazpena gertatu zenean lurak zuen balioaren gainean:

BALIO IGOERA ZER ALDITAN GERTATZEN DEN			
1etik 5 urte bitarte	10 urtera bitarte	15 urtera bitarte	20 urtera bitarte
%3,4.	%3,3.	%3,3.	%2,8.

b) Ordaindu beharreko kuota zehazteko, ondoko karga-tasa aplikatuko zaio zerga-oinarriari: % 12,28.

Halaber, hasiera batean onetsi zituen testu eta tarifak aldatzea ondoko ordenantza fiskal eta prezio publikoen gaineko arauetan. Erregelamenduek agindutako tramiteak bete ondoan, 2017ko urtarrilaren 1ean hartuko dute indarra:

–3. Agiriak luzatu eta tramitatzea.

–4. Lizentziak eman eta hirigintza jarduerak egitea.

–5. Baimenak ematea, eta ingurumena babestearen eta jarduera kaltegabeen alorrean kontroleko administrazio jarduerak egitea.

–10. Herriko jabari publikoko lurzorua, hegalkinaren eta zorupearen erabilpen pribatiboa edo aprobetxamendu berezia.

–13. Uda eta neguko igerilekuak, gune hidrotermala eta instalazio osagarriak osatzen dituzten kirol instalazioak erabiltzea.

–14. Sarrerak, izen emateak edo matrikulak, Udalak antolatzen dituen hezkuntza, kultura, kirol edo gizarte arloko ikastaro eta jardueretarako.

–18. Udalaren lokalak erabiltzea.

–19. Udalaren Musika Eskolan ematen diren ikastaroetan izen eman eta parte hartzea:

Espedientea jendaurrean edukiko da 30 egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailearen 2ko 6/1990 Foru Legearen 325.1.c) artikuluan ezarritakoarekin bat, aurreko ordenantzak behin betiko onetsiak daudela ulertuko da, baldin jendaurrean egoteko epea igarotzen bada inork erreklamazio, kexa edo oharrik aurkeztu gabe. Kasu horretan, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Antsoainen, 2016ko abenduaren 2an.—Alkatea, Ander Andoni Oroz Casimiro.

Iragarkiaren kodea: L1613854